

Merezi *ete* dau erabilera hauei begiratzea?¹ *Is it worth looking at these special uses of ete?*

Arantzazu Elordieta*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ABSTRACT: Two dialectal uses of the discourse particle *ete* (*ote*) in certain exclamative sentences are under study in this work. They are intriguing because their interpretation differs from canonical *ete*. Specifically, in one particular use the speaker uttering *ete* emphatically confirms what her interlocutor has previously said. In the second use, on the other hand, the speaker objects critically to what her interlocutor has previously uttered. Interestingly enough, the complementizer *-(e)n* must always occur even if they are root sentences. In order to explain these values, it is proposed that they are in subordinate sentences, and that while one construction is an instance of a polarity focus, in the second construction the particle has grammaticalized its meaning of lack of full commitment to *no* commitment at all. This would match the often attributed graduable or quantificational nuance of exclamative structures.

KEYWORDS: *ete*; polarity focus; in subordinate; exclamative; irony.

LABURPENA: Ete (*ote*) *partikula epistemikoak harridura-perpauzetan dituen bi erabilera dialektal dira aztergai lan honetan. Interesa dute beren interpretazioa ez delako ote kanonikoak duena, bestelakoa baizik. Izan ere, lehen erabileran hiztunak ete erabiltzean aurretik solaskideak esan duenaren gainean berrespen enfatikoak adierazten du. Bigarrenean, oster, aurretik solaskideak esan duenaren gainean kontrako iritzirik kritikoa ematen du hiztunak. Bestetik, erro-perpauzak diruditen arren,*

¹ Euskararen hainbat hizkeratan aurkitzen dira bitxikeria interesgarriak, batzuek lehenagoko egitura zabalduagoen berri eman diezagukete, eta beste batzuk, aldiz, berrikuntzen ondorio izan ohi dira. Nolanahi ere, gure arreta merezi dute, hizkuntzen bilakabidea hobeto ulertzen lagun diezaguketelako. Jose Ignazio Hualde adiskide eta ikertzaile finak bere lan oparoan sarri lekua egin dio hizkeretako ezaugarriak aztertzeari, eta testuinguru horretan kokatu nahi nuke lan xume hau hain zuzen, nolabait nire esker onak emateko euskararen ezagutza orokor eta xehean aurrera egiten irakatsi digulako. Aipa dezadan, azkenik, ikerketa hau Eusko Jaurlaritzako dirulaguntza jasotzen duen IT1537-22 *HITT* Talde Kontsolidatuaren eta MCIN PID2022-140336NB-I00 ikerketa proiektuaren ekintzen barruan kokatzen dela.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Arantzazu Elordieta. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila - Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitateen ibilbidea, 5 (01006 Gasteiz). – arantzazu.elordieta@ehu.eus – <https://orcid.org/0000-0003-0306-992X>

Nola aipatu / How to cite: Elordieta, Arantzazu (2023). «Merezi *ete* dau erabilera hauei begiratzea?», *ASJU*, 57 (1-2), 295-311. (<https://doi.org/10.1387/asju.25953>).

Jasoa/Received: 2023-03-14; Onartua/Accepted: 2023-05-26.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago

eterekin batera *-(e)n komplementatzaileak agertu behar du. Balio hauek azaldu nahian, artikuluan proposatzen da perpaus insubordinatuak direla, eta lehen erabileran polaritate fokuari balioa hartzen duelarik, ete partikulak eta aditzak ezkeralderako mugida jasaten dutela. Bigarren erabileran, ordea, etek bere esanahia gramatikalizatu du hiztunak proposizioan adierazitakoarekin guztiz bat egiten ez duela adieraztetik adostasunik batere ez duela adierazteraino. Horrek bat egingo luke egitura esklamatiboek daukaten nabardura kuantifikatzailearekin.*

HITZ GAKOAK: ete; polaritate fokua; insubordinatua; esklamatiboa; ironia.

1. Sarrera

Lan honetan Bizkaiko zenbait hizkeratan entzuten diren *ete (ote)* partikularen bi erabilera bitxi izango ditut hizpide.² Erabilera bitxiak direla diogu *otek* euskara estandarrean duen erabilera eta interpretaziotik aldentzen direlako, eta nik dakidala, orain arte ez direlako xehetasunez aztertu (erabilera baterako ikus, hala ere, Elordietak 2022a). Aurrerago argudiatuko dudanez, bi egitura desberdinen aurrean gaudela proposatuko dut, nahiz eta ezaugarri batzuk partekatzen dituzten: a) batetik, *-(e)n* menderagailuaren agerpenak salatzen duenez, sintaktikoki mendeko egiturak dirudite itxuraz perpaus bakarrak diren arren; b) bestetik, alde aurretik solaskideak esandako zerbaiti buruz erreakzio emozionala adierazten dute —esandakoaren kontrako balio ironikoa kasu batean eta berrespen enfatikoa bestean—; eta c) hirugarrenik, *ete* partikularen presentzia beharrezkoa dute daukaten zentzua mantentzeko.

Gutxi edo batere deskribatuta ez egotearen arrazoia, ziur asko, ahozkoan entzuten diren egiturak direla izan daiteke, eta gainera oso eremu dialektal txikian erabiltzen direla —Zuazoren (2017) sailkapenean mendebaldeko euskararen sortaldeko eremuko zenbait herritan gutxienez—, erabilera hauen hedapena gehiago ikertu behar den arren. Bestalde, aldakortasun diatopikoaz haratago, oro har euskarazko partikula modalen erabileran gertatzen ari den joera orokorraren adibide garbia dira, hiztun gazteen ahotan *eteren* erabilera hauek desagertuz doazelako, batik bat kontrako balioa duen partikularena, berrespenaren balioduna ezagunagoa baitute. Izan ere, 50 urtetik beherako hiztunen mintzoan nekez entzungo ditugu *ete (ote)*ren bidez eratutako harridura-perpaus hauek, inguruan aditzen eta ulertzen dituzten arren. Lan honek badu, hortaz, bestelako asmo xume bat, hain zuzen hurrengo belaunaldietako mintzotik galdu aurretik *ete* partikula modalaz lekukotu nahi genituzkeen euskararen adierazpen possibleetako batzuk deskribatzea.

Has gaitzen, beraz, aztergai ditugun egiturak aurkezten. Gogoan izan behar da elkarrizketa baten txanda-trukean ulertu behar direla esapideok, hizketa baten barruan soilik dute tokia eta. Bestetik, datuen deskribapen fidelagoaren mesedetan, erakutsiko diren adibideak aldaera estandarrean eman ordez dagozkion aldaeran ematea hobetsi dut, erabakiak ulermenean kalterik ez dakarrelakoan. Ondoko adibideek argi erakusten dituzte bi balioak; batak aurreko adierazpenarekiko berrespen enfati-

² Esker onen artean, datu-emaike nagusiak izan ditudan etxeok aipatu nahi nituzke. Era berean, eskerrak bihoazkie Xabier Bilbao, Gorka Elordietak, Azler Garcia, Iñaki Gaminde, Joseba Lakarra, Aitor Lizardi, Itziar San Martin eta Koldo Zuazo lankideei, eta Kristina Bilbao, Iñaki Moriones, Paul Naxiondo, Cristina Ruiz eta Endika Uriarte ikasleei egitura hauei buruzko juzkuak nirekin partekatzeagatik.

koa adierazten duen bitartean (1), besteak perpausak duen polaritatearen kontrako (ezezko) balioa du, ironiarekin lotu ohi dena (2):

- (1) A. Mikelegaz egin dot topo lehin. Handikeriak kontaten ibili jat. Inñuzentia da...!
B. Ete dan inñuzentia (ba)! (beti dabil holako tontokeriak!...)
- (2) A. Automobil barria erosteko asmotan nabil. Elektrikua erosi nahi dot, baña ondiñoko eztago elektrolinera nahikorik, eta dudan nago
B. (Bai...!) Neuk erosi ete doten kotxe elektrikua! Ezta...!

(1)-eko adibidearen esanahia gardena den arren, ez da horregatik interesik gabea. Egiazki, bi ezaugarri nagusi nabarmendu daitezke egitura honetan; batetik, esanahia, berrespena adierazten baitu eta ez zalantza edo norberaren hausnarketa, azken horiek baitira *ote* kanonikoaren balio nagusiak (Euskaltzaindia 1991, 1999; Monforte 2020a); eta bestetik, partikula modalak duen posizioa, perpaus hasieran, hori ere ez baita ohikoa egungo euskara estandarrean. Bigarren egiturari dagokionez, (2A)-ren adierazpenari solaskideak (2B)-rekin erantzuten dionean benetan esan nahi duena da berak ez lukeela kotxe elektrikorik erosiko zoratuta ere ez —hortik «ezta...!» interjekzioarekin edo «pentza bez! / pentsatu ere ez!» harridurazko emendailuarekin batera agertzeko aukera—. Beste hitzetan esanda, perpausak adierazten duen (baiezko) polaritatearen kontrako balioa du, eta zentzu ironikoa dario.

Bistan da *oteren* balio ironikoa zein berrespenarena ez direla ezezagunak, haren erabilera deskribatu duten zenbait lanetan (Euskaltzaindia 1987, 1991, 2021; Petrirena 2011) aipatu izan delako galdera-testuinguru nagusitik at batzuetan harridura, enfasia eta ironia adieraz daitezkeela *ote* erabilita:

- (3) Zenbat bertso ez *ote* zituen jarri Basarrik! (Euskaltzaindia 2021: 939)
- (4) Egia *ote* da, bada! ('Horixe egia dela!')
- (5) Isilduko *ote* da noizbait! (Euskaltzaindia 1991: 516)

Hargatik, berehala ohartuko gara badirela aldeak egitura hauen eta (1) eta (2)-koen artean. Nabarmenki, *-(e)n* menderagailuaren presentzia da desberdintasun nagusia, baina badira gehiago, adierazten duten *ñabardura* semantikoarekin lotuak: (1) eta (2)-ko esapideek ez dute sekula desio-balioa aditzera ematen, ez dute ezeztapena onartzen, eta ez dute NZ-rik ametitzen.

- (6) *Ez ete dan luzia, ba!
- (7) a. *Zelako luzia ete dan, ba!
b. *Bai..! neuk ez ete dotzaten esan egi osua alabiari!

Bestalde, beti daude lotuta aurretik ekoitzi den proposizio bati. Hau da, ezin dute sekula berbaldia hasi, baizik eta justu aurretik esan den adierazpen baten aurrean hiztunak duen erreakzio emozionala adierazten dute —hortik harridurazko perpausetan agertzea—. (2) adibideak erakusten duen egituraren ezaugarri ohargarriena beharbada daukan kontrako iritzi kritikoaren balioa da, perpausak adierazten duen polaritatearekin bat egiten ez duena. Zentzu horretan galdera erretorikoen antza du (ikus, beste askoren artean, Obenauer 2004; Littell *et al.* 2010; Andueza 2011; Gutiérrez-Rexach & Andueza 2017; Alcázar 2017; Biezma & Rawlins 2017). Hala ere badi-

tuzte hainbat desberdintasun bien artean: a) galdera erretorikoak ez bezala, egitura hauek elkarrizketako testuinguruetan soilik erabili behar dira, galdera erretorikoek, aldiz, ez dute murriztapen hori eta elkarrizketatik kanpo erabil daitezke; b) *ete* egitura hauek ez dute NZ-hitzik onartzen, eta c) ezin dira ezeztatu. Bestetik, galdera erretorikoetan ez bezala, egitura hauetan ez dugu galderetan normalean gertatzen den aditzaren aurreratze-efekturik aurkitzen.

Era berean, aldera ditzagun (1) bezalako egitura enfatikoak (4) adibidearekin. Egiatan, biek dute berrespen enfatikoaren zentzua, baina forman ez dira berdinak: (1)-ekoetan nahitaezkoa da *-(e)n* menderagailua agertzea, (4)-koetan ez bezala, eta horrez gain, *ete* partikularen kokapena ez da bera, (1)-ekoetan *ete* partikula perpaus hasieran agertzen delako. Izan ere, hurrenkera hori harrigarria da, ez delako euskaraz espero duguna, ezaguna baita partikula modalek edo diskurtsiboek ez dutela babesten aditz jokatuaren lehen posizioan agertzetik (cf. **ote dator Mikel*). Orrialde mugak tarteko, lan honetan ez naiz analisi xehetuan sartuko, baina 3. atalean bi egituren jokatibidea azal dezakeen hurbilketa irudikatzen saiatuko naiz, azaletik bada ere.

Lana honela egituratuta dago: bigarren atalean *ote/ete* partikula modalaren ezaugarri nagusiak deskribatuko dira eta erabilera «bereziak» erabilera kanonikotik noraino aldentzen diren erakutsiko da; 3. atalean harridurazko *ete* perpausok erakusten duten sintaxia eta semantika azaltzeko egiten dudan hurbilpena ekarriko dut, eta 4. atalak lanean ateratako ondorio nagusiak laburtzen ditu.

2. *Ote/ete* partikularen interpretazioez

Euskal gramatiketan *ete/ote* partikula «partikula modal» deituraz (ikus besteren artean, de Rijk 1972, 2008; Euskaltzaindia 1987; Mujika 1988; Ortiz de Urbina 2003: 322; Monforte 2020a,b, 2021) edo «partikula» hutsarekin (Jendraschek 2003; *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*; Euskaltzaindia 2021: 928) deitu izan diren *omen*, *ei*, *bide*, *al*, *ahal* elementuekin batera multzokatzen da. Bakoitzak bere ñabardura propioa duen arren, partikula hauek ezaugarri batzuk partekatzen dituzte, eta beharbada aipagarrienak ondokoak dira: a) aditz jokatuarekin batera ageri dira, haren aurrean; b) morfonologikoki silaba bakarrekoak ala bi silabakoak izanik klitikoek jokatibidea erakusten dute (azenturik ez daramate, eta aditzarekin batera mugitzen dira galderafoku kontestuetan); c) haien artean ez dira bateragarriak; eta d) perpausaren esanahia aldatzen dute nolabait.

Inguruko hizkuntzekin konparatuz gero partikula modalen sorta aski aberatsa da euskaraz; haietako batzuek forma desberdinak hartzen dituzte eremu dialektalaren arabera, eta perpausari ñabardura semantiko eta pragmatiko desberdinak gehitzen dizkiote. Askotan erraza ez den arren zein adiera jakin dakarten zehaztea, iruditzen zait ez dela eztabaidagarria onartzea partikula batzuk modalitate epistemikoarekin lotuago daudela eta beste batzuk, ostera, ebidentzialtasunarekin. Lan honetako aztergaia den *ete* (*ote*) elementua, kasurako, partikula epistemikoen barruan kokatu ohi da, zalantzazko kutsua esleitu baitzaio (Euskaltzaindia 1987, 2021; Mujika 1988; *Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)*; *SEG*; Monforte 2020a). Modalitate epistemikoarekin esan nahi dugu hitzunak perpausaren esanaren duen zurratsun maila, zalantza, edo engaiamendu maila morfosintaxiaren bidez nola markatzen duen.

Partikulak har ditzakeen beste balioak deskribatzeari ekin baino lehen, azpimarratu nahi nuke nolako interesa duen gramatikarentzat partikula modalen azterketak. Izan ere, hizkuntza germaniarretan eta erromantzeetan partikula hauei buruz azken hamarkadetan egin diren ikerketa-lanei begiratzea besterik ez da behar haien garrantziaz ohartzeko (ik. beste askoren artean Corr 2016, 2018; Döring 2016; Wiltschko & Heim 2016; Bayer & Struckmeier 2017; Artiagoitia *et al.* 2022). Eta euskarazko partikula modalen alorrean, nabarmentzekoak dira azken urteetan *omen* (Zubeldia 2009, 2010, 2011; Etxepare 2010a; Korta & Zubeldia 2014; Etxepare & Uria 2016), *ote* (Monforte 2020a,b, 2021) eta *bideri* buruz (Korta & Zubeldia 2014, 2022) plazaratu diren lan interesgarriak. Bereziki, Monfortek ireki duen bidetik, ikerketa honetan *oteren* aldaera dialektala den *eteren* erabilera ez-kanoniko batzuetan jarriko dugu arreta. Has gaitezten, lehenik, *ote* partikularen erabilera kanonikoa zein den aurkezten, ondoren argiago azal dezagun zertan aldentzen den *oteren* beste erabileretatik.

2.1. Oteren erabilera kanonikoa

Partikula honen ekarpen semantikoa zehaztea eztabaidagarria den arren, oro har balio epistemikoa duen partikula gisa deskribatu izan da lan gehienetan; funtzio erretorikoa ere aitortu izan zaio (Euskaltzaindia 1987, 2021; Mujika 1988; *OEH*; *SEG*), eta hainbatetan zalantzazko edo balio espekulatiboa ere erantsi zaio (Azkue 1923-1925; de Rijk 2008; *OEH*; *SEG*). Bere erabilera kanonikoan, galderetan erabiltzen ohi da, bai/ez motako perpausetan nahiz NZ-galderetan, eta perpaus nagusietan zein mendeko zehargalderetan. De Rijk (2008: 164) dioenez, galdera hauek mota askotakoak izan daitezke:³ i) norbere buruari eginak, beste norbaiten aurrean egon arren: *Iritsiko ote naiz sasoz zinemara? Berandu nabil eta...*; ii) galdera erretorikoak ere izan daitezke, erantzunik espero ez dutenak: *Horiek beti berandu. Iritsiko ote dira?*; edo c) galdera arruntak, solaskideari zuzenduak: *Ba ote daki Mikelek gaur zure urtebetetze eguna dela?*. Orobat, Euskaltzaindiak (1987) dio gogoeta baten harira mamitzen den galdera adierazten duela, eta *SEG*ek irizten dio *ote* erabiltzean hiztunak ez duela ezinbestean erantzunik espero: «Badirudi, norberaren nolabaiteko ezinegona edo adierazten duela gehiago». Ildo beretik doa Monforte (2020a) *ote* partikulak galdera «konjeturalak» ematen dituela aditzera argudiatzen duenean.

Tradizioari dagokionez, gutxi erabili izan da goi-nafarreraz eta zubereraz (*OEH*), baina gainerako euskalkietan arrunta da —bizkaieraz *ete* aldaeran—. Nolanahi ere, gorago aipatu denez, badirudi partikula modalen erabilera gainbeheran doala gazteen mintzoan, ingurukoan ahotan ezagunak dituzten arren.

³ De Rijken ustez, *oteren* oinarrian latin berantiarreko *aut ne* («edo ez») dago (de Rijk 2008: 164). Baina Lakarrak (2019: 383-385) ohartarazi duenez, ideia horrek hainbat arazo ditu: alde batetik fonetikoak, latinetik euskarazko formara igarotzeko proposatu beharko lirakeen bilakabide fonetikoak gutxienik «ezohikoak» direlako, eta bestetik, ez dagoelako eremu erromaniarrean bilakabide paraleloa erakutsi duen egiturarik. Lakarraren hipotesiaren arabera, jatorrian ‘eman, iruditu’ tankerako esanahia izango lukeen **bo(C)+-te* aditz-izena legoke. Eskerrak eman nahi dizkiot Joseba Lakarrari auzi honi buruz idatzitakoeh ohartarazteagatik.

Kokapenaz den bezainbatean, adizki jokatuaren aurrean agertzen ohi da *ote*:

- (8) a. Lo ete naz? Ala iratzarririk nago? (Lazarraga 1152r.)
 b. Ez dakit txantxetan ez ote dabilen
 c. Jaungoikoaz ostean, iñork ere bestek kriatu edo sortu ote daike gauzarik? (Ochoa de Arin, 1713)
 d. Nik nondik merezi othe dut, / Jauna, hunenbat ohore? (Gasteluzar, 1686)
 e. Baina, apirila, hitza bera, nondik ote dator? (*Naturaren mintzoa*, Pello Zabala)

Baina ez dira gutxi aditza isilduta ageri duten lekukotasunak, batik bat *bai* eta *ez* polaritate elementuekin batera, aspaldian hainbatek ohartarazi dutenez (Azkue 1923-1925; Euskaltzaindia 1987; Ortiz de Urbina 2003; de Rijk 2008; *SEG*, kasurako):

- (9) a. Nondik bada loria naiteke, eta zergatik guthizia dut estimatua izaiteko? Ene ezdeusagatik *othe*? (*Iesusen Imitacionea*, Pouvreau, 1669)
 b. Zorionekoa ote, edo gaiztokoa, ori eztatit (Arrue May 43, 1888)

Galdera zuzen zein zehargalderetan erabiltzeaz gain, zenbait aditzen osagarri-perpausetan ere agertzen da, euskalki guztietan, idatzizko lekukotasunei ohar eginez gero, salbu eta goi-nafarreraz eta zubereraz, lehen aipatu bezala. Monfortek (2020a) ondoko aditzetara mugatzen ditu galderak hautatzen ez dituzten baina *ote* onartzen duten mendeko perpausen aditz gobernatzaileak: *beldur izan*, *zalantza izan*, *iruditu* (eta esanahi bereko aditz-aldaerak), eta Lafittek (1979 [1944]) zioenaren ildotik, seinalatzen du *ote* gehitzean hitzunak adierazten duela proposizioan adierazitakoarekin ez duela guztiz bat egiten, edo ez duela ziurtzat jotzen (Monforte 2020a: 201). Beheko adibideak honen erakusgarri dira, *OEHT*ik atereak:

- (10) a. Samar bat irintxi *ote* dian iruditu zatan (Barandiaran 1972, *apud* Monforte 2020: [196a])
 b. Aitonari begira, ezer sumatuko *ete* zuan bildurrez (Txomin Agirre, *Garoa*, 1912)

Honaino *ote* partikulak dituen erabilera orokorrak aipatu ditugu. Ondoren lan honetan hizpide ditugun erabilerak aurkeztuko ditut, aurrerago haien interpretazioa ulertzeko hurbilketa bat proposatuko dudalarik.

2.2. Erabilera ez-kanonikoak: *Ete daukazun, ba!* eta *Neu joan ete naizen haraino!* egiturak

Oteren erabilera ez-kanonikoez ari garela, Monfortek (2020a) erakutsi du erabilera orokorretik at, ekialdeko hizkeretan bestelako kokapenak agertzen dituela *ote* partikulak: perpaus osoaren amaieran (11a), NZ galdetzailearen ondoren (11b), edo aditz jokatuaren ostean (11c), eta kokapenarekin batera agerpen bakoitzaren jokabide sintaktiko eta semantikoak azaltzeko proposamenak egiten ditu.⁴

⁴ *Orotariko Euskal Hiztegi*an ere aditz jokatuaren ondoko erabileraren testigantzak jasotzen dira, eta bestalde agerpen bat (bakarra) lekukotzen da galdetzailearen aurretik: *Arren orai urbentzian / has gitian*

- (11) a. Hi, ez ahal duk besterik egiteko *ote*? (Thikoipe 2009: 134)
 b. Nork *ote* jan züan? (Casenave-Harigile 1997)
 c. Eztakit ardi horrek bildotxa ukhain dienez *othe* gaur. (Camino 2009b: 193)

Artikuluaren luze-laburrak ez du ahalbidetzen erabilera hauetan sakontzea, baina irakurleak Monforteren lanean aurkituko ditu erabilera hauei buruzko analisi eta xehetasun arras interesgarriak. Hemen erabilera kanonikotik urruntzen diren eta sarreara atalean aurkeztu ditugun beste jokamoldeak aurkeztuko ditut, zehazki, *etek* zenbait hizkeratan harridura-perpauetan izan ditzakeen bi balio agerian uzten dituzten egiturenak: hitzunak bata erabiliko du aurretik beste norbaitek esandakoarekin guztiz bat egiten duela berretsi nahi duenean, eta, aldiz, bigarrena erabiliko du esandakoari buruz kontrako iritzia duenean (ikus Elordieta 2022a, 2022b, bigarren egiturari buruzko deskribapenerako). Azpimarratu behar da bi egiturak elkarrizketa baten tesuinguruan erabiltzekoak direla beti ere; aurretik beste norbaitek esan duenaren arrapostu edo erreazio emozionalak baitira (bestela ezin dira ulertu ez erabili). Hortaz, aurretiazko tesuinguru diskurtsiboari oso lotuta daude, beste harridurazko egitura batzuetan lotura hori nahitaezkoa ez den bitartean (adibidez, *Zein egun ederra egiten duen gaur!* esan dezakegu aldeztatik inork eguraldiaz ezer ez badu esan ere). Kontrara, hemengo esklatatiboek ezin dute elkarrizketa bat hasi, ezin lirateke interpreta- tuak izan eta. Hona hemen egitura hauen beste adibide batzuk:

- (12) A. Bihar asko daukat; amaitu egin bihar dot lan bat eta azterketak be zuzen- tzeke daukaraz
 B. Ete daukazun biharra! Astebururik be eztaukazu-ta!
- (13) A. Eztot nahi abionian juan, beraz, autobusian jungo naz Sevillara.
 B. (Baai...!) Neu jun ete nazen autobusian hainbeste orduz! (ezta...!)

Ete partikula daramaten arren, eta biak kontestu esklatatiboetan erabiltzen ba- dira ere, bi egitura desberdin direla proposatuko dut, interpretazio desberdinetara eramaten dutelako eta partikulak batean eta bestean perpausean erakusten duen ko- kapena ere desberdina delako (perpau hasieran edo posizio kanonikoan, hurrenez hurren).

2.2.1. Berrespena adieraziz

(12B) esatean hitzunak berretsi egiten du aurretik beste solaskideak egin duen adierazpena, harridurazko esapideen intonazioarekin eta balio enfatikoarekin jan- tziz. Monfortek (2020a: 206) bere tesian erabilera ezohiko hau aipatzen du aza- letik, eta *OEHn* aurki daitezkeen lekukotasun bakanen berri ematen du (zehazki, Ondarroako, Markinako eta arrasatearra zen Jokin Zaitegiren adibide bakanak aurki daitezke). *Corpus historikoan* arakatu ondoren, Juan Bautista Eguzkitza le- moarraren beste adibide bat aurkitu dut (14a), *ete* partikula hasieran agertzen ez

gure lanian, / Bakhotzak üdan bortian / othe zer eginen dian. Junes Casenave, *Santa Grazi. Pastoral*. Do- nostia, 1976.

den arren,⁵ eta *Egungo Testuen Corpusak* Leire Saitua artikulugile ibarrangeluarren adibide bakar baina esanguratsua dakar (14b):

- (14) a. Baña gauza bakotxak balio biok ba'daukazala, ez ete da, ba, egia?
Egia *ete*-dan ba! Egi argi ta garbia dalako inongo gizasemek egundo ukatu dauanik eztoz uste. (Juan Bautista Eguzkitza, *Gizarte auzia*, 1935)
- b. Pobreak, benetan be, *ete* diren ba pobreak! (*Berria*, 2008-07-29, «Herri estresari aurre egiteko»)

Idatzizko testigantza apurrak izatea ez da harritzekoa aintzat hartzen badugu batik bat ahozko jardunean entzuten direla. Monforteren iritziz galbidean dagoen egitura da, adinekoek soilik erabiltzen dutelako, eta gero eta eremu murriztuagoan. Lea-Artibaiko eremuan, 45-50 urtetik gorakoek darabilte nagusiki euren berbaldian, baina hitzun gazteagoentzat egitura ezaguna den arren, eta daukan zentzua ondo interpretatzen duten arren, bere adinkideekin ez dute erabiltzen. Era berean, Markinan eta Mutrikun egitura ezaguna da, Mallabian ere bai, baina hemen ere belaunaldien arteko aldaketa gertatu da erabileran, ezaguna izan arren, gazteagoek ez baitute beren hizketan erabiltzen. Bestalde, Arratian, Txorierrin, Uribe-Kostan eta Bermeon galera lehenago hasi zen —xx. mendean erabiltzen bazen, bederen—, ez baitira egitura ezagunak gaur egungo gazteentzat ez haien nagusientzat. Hala ere, ikusi dugunez, Busturialdeko Ibarrangelun badira ezagunak eta Gernika inguruan ere nagusiei entzunak omen dizkiete.

Erabilera murriztuz badoa ere, *ete ...-(e)n ba!* egiturak deskribapen zehatzagoa behar du, ezin baita edozein kontestutan erabili. Izan ere, benetako harridurazko egituretan bezalaxe, baieztapen enfatiko hau esatean nolabaiteko kuantifikazioa ere adierazten da; esate baterako, (12B)-ko *etedun* egitura zilegi da aurretik beste solaskideak egin duen adierazpenaren gainean hitzunak goreneko maila edo kantitatea —*bihar asko* ('lan asko')— kuantifikatzen duelako. Gauza bera gertatzen da goiko (1b) eta (14a-b) adibideetan. Horregatik, baiespen kontestu honetatik kanpo eta kuantifikazioa adieraztea ezinezkoa den testuinguruetan ez da onargarria izango egitura hau erabiltzea. Ondorioz, Monfortek ematen duen (15) adibidea pragmatikoki eta semantikoki desegokia da, ezin delako irakurketa kuantifikaturik egin, ezin delako 'etxea erosi' gertaeraren gainean haztatu:

- (15) a. Itziarrek etxea erosi dau.
b. #*Ete* dauen ba! (Monforte 2020a: [163] 206)

Gehienetan *izan*, *eduki* aditz trinkoekin erabiltzen bada ere, aditz perifrastikoekin ere entzuten da, beti ere kuantifikazioaren interpretazioa eman ahal bazaio. Horrela, (15)-eko adibidea moldatuz, *Itziarrek oinetako asko erosi ditu (ditxuz)* adierazpenari erantzun dakioke *Ete dabezen erosi!* (...ez dakit zertarako baina!) esanez.

Hurrengo atalean egitura hauen izaera sintaktikoa zein izan daitekeen zirriborratuko dut, beraz, ez dut hemen gehiago sakonduko, eta jarraian beste *eteren* erabilera deskribatuko dut.

⁵ Lemoarra izan arren, Eguzkitza abadeak urte gehienak Lekeitioan eman zituen latin irakasle. Beraz, beharbada egitura herritarren hizkeratik hartu zuen, bere Arratiako hizkeratik baino.

2.2.2. Kontrako iritzia adieraziz

Sarreran aurreratu bezala, hizkera berean bada orain arte deskribatu ez den *ete* partikularen beste erabilera dialektal bat, hau ere harridurazko testuinguruan erabiltzen dena, baina —interesgarriro — bestelako interpretazioa duena, ia-ia kontrakoa. Zehazki, hiztunak aurretik egin den adierazpen bati enfatikoki berrespena emateko baino, *ete* honen kasuan ekarpen interpretatiboa hain zuzen kontrakoa da; alegia, berbaldian aurretik egin den baieztapenarekin *kontrako* iritzia duela adierazteko erabiltzen du hiztunak. Era horretan, proposizioan deskribatzen den gertaera hiztunaren ikuspuntutik nekez edo inoiz ez dela gertatuko azaldu nahi du. Beste adibide bat ekarriko dugu eztabaidara duen balioa argiago erakusteko:

(16) A. Egueldi zantarra emonda dago, baina halan da guzti be, mendira jungo naz bihar.

B. (Bai...!) Neu jun ete nazen mendira honegaz eguelldiagaz! Ezta...!

Elkarrizketa honetan B hiztunak A-ren baieztapenari (16B)-rekin erantzuten diotanean, adierazi nahi dio bera ez litzatekeela mendira joango hain eguraldi eskasarekin, eta azpian dagoen irakurketa gehigarria da ez zaiola ideia ona iruditzen; nolabait esateko, desadostasuna erakusten du solaskideak daukan asmoarekin. Egitura hauei harridurazko balioa intonazio bereziak ematen die, eta batez ere sarri interjekzioekin batera esan ohi direla (adibidean, *bai!* kontrako iritzia adierazteko erabiltzen den interjekzioa, kasurako).⁶

Ohargarria da kontrako iritzi (negatibo)a adierazi arren, perpausa ez dela ezeztapenaren bidez ematen —izan ere, ezin da ezezkoan jarri—, alegia, proposizioan adierazten denaren kontrako polaritatea ematen du aditzera. Gauza bera gertatzen da galdera erretorikoetan, baina hauetan ezeztapena zilegi da, NZ-hitzak ohikoak dira eta sarri galderaren erantzuna ezaguna da bai hiztunarentzat bai solaskidearentzat. Ezauzgarri hauetako ezein ez dute partekatzen harridurazko *ete* perpausek.

Hortaz, ikusten dugu *ete* partikulak berrespeneko ala kontrako balio pragmatikoa erants diezaiokeela adierazpenari, zein testuingurutan erabiltzen den. Bistan da, funtsezko galdera da nola eratortzen diren bi interpretazioak. Ideia da erabilera bata eta besteak sintaxi desberdina dutela, eta hortik eratortzen dela balio desberdina.

3. Hurbilpen baterantz

3.1. *Ete* eta berrespen enfatikoa

Egitura osoak duen berrespen enfatikoaren interpretazioak lagun gaitzake erantzuna bilatzen. Izan ere, enfasia eta fokua lotuta doazen kontzeptuak direnez, aintzat hartzen badugu euskaraz fokua markatzeak ezkererako mugimendua erakartzen duela, proposa dezakegu egitura hauetan baieztapenaren fokua mugimendua gertatzen dela. Alegia, aditz jokatu eta partikula ezkerrean kokatuta dagoen Foku burura mugitu direla. Azaldu behar dena da zein den *eteren* ekarpena egitura hauek duten interpretazioan, eta nola eratortzen diren sintaxian. Horretarako, euskaraz po-

⁶ Interjekzioen eta partikula modalen arteko harremana aztertzen duen lan berri baterako, ikusi Munaro (2022).

laritate fokua azaltzeko proposatu diren egituretatik abiatu behar dugu eta bestetik *-(e)n* menderagailuaren agerpena eta kokapena azaltzen saiatuko naiz.

Abiapuntu bezala, onartuko dugu *Badaki Anderrek kanpora zoazela* gisako polaritatezko foku egituretan aditza Foku burura mugitzen dela (ik. besteak beste, Ortiz de Urbina 1994, 1995; Elordieta 2010; Elordieta & Haddican 2016). Egitura horiei *ote/ete* gehitzen badiegu, gogoan hartuta partikula hau nagusiki galderen testuinguruan zilegiztatzen dela —erro-perpausetan, bederen—, perpausek galdera itxura hartuko dute, baina aurretik beste elementu bat dutela agertu behar dute gaurko euskara estandarrean:

- (17) a. *Ba* ote daki Anderrek kanpora zoazela?
 b. **Ote* daki Anderrek kanpora zoazela?

Gauza bera *ote/ete* mendeko testuinguruan badago:

- (18) a. *Bildur dira [ote dauden gaixorik]
 b. Bildur dira [gaixorik ba ote dauden]

Adizki jokatuak perpau nagusietan lehen posizio hutsean agertzeko duten ezintasun edo debekuan oinarrituta (Altube 1929; Euskaltzaindia 1986; Ortiz de Urbina 1989, 1994; Uriagereka 1999; Elordieta & Haddican 2016), zenbait hitz hautagai egokiak dira aditza lehen gunetik babesteko, eta beste batzuk ez (egungo euskara estandarrean). *Ba* eta *ez* partikulek adibidez, badute indar babesle hori, baina partikula modalek oro har ez (Euskaltzaindia 1987; 2021; Ortiz de Urbina 2003).

Bitxia dena da *ote* partikulak bestelako jokabidea erakusten duela ikergai ditugun testuinguru eskamatiboetan, erabilera estandarrekin alderatzen badugu, behintzat. Izan ere, adibideetan ikusi denez, *ete* partikula perpau hasieran agertzen da *Ete dan ona, ba!* esaldietan. Honen aurrean sortzen zaigun galdera agerikoa da, alegia, zergatik testuinguru «arruntetan» partikula ezin den perpau hasieran agertu, baina bai, berriz, testuinguru eskamatibo enfatikoetan.

Honen harira, bi kontu ekarri nahi nituzke eztabaidara. Alde batetik, *ote* bezala partikula modala den *omen* partikula ebidentzialaren portaera, eta bestetik, *ete* hasieran duten galderazko lekukotasun batzuk. Hain zuzen ere, *omen* partikulari buruz ikertu duten zenbait lanek erakutsi dute ekialdeko hizkeretan partikula perpau hasieran ager daitekeela aipamen-testuinguruetan (*quotative*), edo polaritate kontestuetan (Etxepare 2010a; Etxepare & Uria 2016):

- (19) a. Bere senarra ospitalean da, omen gaizki dela
 = Bere senarra ospitalean da, *diotenez* eri dago
 b. Omen zen gizon bat...
 = *Diotenez*, baten gizon bat... (Etxepare & Uria 2016: [21], [18b])

Etxeparek eta Uriak, aldakortasun honen berri emateko, proposatzen dute ekialdeko hizkeretan *omen* partikulak bi kokapen izan ditzakeela, kasu batean *-(e)la* Konplementatzaile Sintagmaren gainean, topikalizatuta (19a), eta bestean, (baiezko) Polaritate Sintagmaren espeziifikatzaile gunean (19b).⁷ Ideia honi jarraituz, lan honetan hizpide

⁷ Irakurle interesatua Etxepare & Uriaren (2016) lana irakurtzera gonbidatzen dugu analisis bere osotasun eta sakontasunean ulertzeko.

ditugun *ete* egitura enfatikoaren eraketa azaltzeko antzeko azterbidea proposatu nahi dut, dagokion kontestura egokituta. Hau da, *ete* Foku Sintagmaren espezifikatzailean legoke, eta aditz jokatuaren sintagma beraren buruan, bien arteko albokotasuna ezin baita hautsi ezelan ere. Horrek daukan interpretazio enfatikoari erantzuna emango lioke, baina halaberrez eramaten gaitu onartzera *ete* partikulak batzuetan klitiko gisa jokatzen duela, eta beste batzuetan adberbio gisa. Ideia hau ez da berria, aurretik Etxeparek (2010a) *omen* partikulaz eta berriki Monfortek (2020a,b) *otek* ekialdean duen jokaera ez-kanonikoak aztertzean ondorioztatu baitute partikula horiek bi izaera morfosintaktiko desberdin adieraz dezaketela, batean buru klitiko batena, bestean adberbio batena. Prosodiak ere aldeko ebidentzia ekartzen du, *ete* partikulak azentuera desberdina duelako erabilera klitikoan —azenturik gabekoa da— eta perpaus hasierako erabilera enfatikoan, non 2. silaban doinu-azentuak nabarmen gorantz egiten duen eta mantendu egiten den aditz jokatuaren ondoren beherakada jasan arte:

- (20) a. Ez dakit [liburúa ekarri ete dabèn]
 b. Eté dabén ekarri, ba, sekulako mozkorra!

Bestetik, ohargarria da erabilera estandarrean *ote/ete* partikularen aurretik beste elementuren bat agertzeko beharra bada ere, corpus idatzietan *ete* partikula lehen posizioan doan hainbat lekukotasun aurki daitezkeela, batez ere galderazko testuinguruetan. Adibide batzuk ekarriko ditut hona, *Corpus historikotik* erauziak, gehienak gerra aurreko mendebaldeko idazleen lanetatik:

- (21) a. Ete dakije ezer ixarren unian? (Estepan Urkiaga - «Lauaxeta», *Bide barrijak*, 1931)
 b. Ete da sari-zigorrik? (Manterola, *Goi-izpiak*, 1921)
 c. Ete dago norbait aberastasuunik nai ezтуanik? (Txomin Agirre, *Sermoiak*, 1898-1916)

Aurreko adibideek eta aztergai ditugun *ete dan ba!* egiturek erakusten dute *ete* partikulak izan duela eta baduela izaera beregain nahikorik aditz jokatuaren lehen gunetik babesteko. Arestian iradoki bezala, jokaera honen berri emateko azalpen bat izan daiteke pentsatzea *ete* partikulak horrelakoetan adberbio gisa jokatzen duela, eta FokuSaren espezifikatzailean dagoela. Bestetik, menderagailuaren agerpena azaltzeko, pentsa dezakegu perpaus insubordinatuak direla, hots, ezkutuko mendeko perpausak (Evans 2007; Gras 2016, 2017). Horrek zuzenean azalduko luke *-(e)n* menderagailuaren agerpena egituretan.⁸ Monfortek (2020a) izpiritu beretik baina insubordinazioa aipatu gabe egiten duen iradokizun bati tiraka, proposa dezakegu *ete dan ba!* egiturak perpaus nagusiko aditza isildu ondoren eratorri direla. Hala ere, isildutako aditza

⁸ *-(e)n* menderagailuaren agerpena ez zaio irakurleari harrigarri gertatuko, hain zuzen euskaraz harridurazko perpausak *-(e)n* menderagailuarekin osatzen baitira (Villasante 1979; Euskaltzaindia 1991; Artiagoitia 2006, besteak beste). Hala ere, gramatiketan konplementatzaile gabe harridurazko adibideak ere aurkitzen ditugun, gorago aipatu denez:

- (i) Egia *ote* da, bada! ('Horixe egia dela!')
 (ii) Isilduko *ote* da noizbait! (EGLU-II: 516)

Hauei inoiz «harridurazko erretorikoak» deitu zaie (Andueza 2011; Andueza & Gutiérrez-Rexach 2011).

galdetu balitz, Monfortek proposatu bezala, horrek berez ez luke azalduko daukaten balioa, esapidea erabiltzen den testuinguruaren atzean ez baitago galdera bat, edo ez beti, behintzat; hobe esanda, galdera jakin mota bati erantzun diezaioke (esaterako, *Diru asko irabazten dau Amaiak?*), baina arruntagoa da solaskidearen adierazpen baten erreakzio bezala. Hortaz, daukaten irakurketa azaltzeko, proposatzen dut *dударик ez izan* izan zitekeela aditz nagusia, eta gero, [*polita ete dan*] moduko zehargalderak harridurazko kontestu batean enuntziatzen zirenean gramatikalizazio prozesua jasan zutela aditz nagusia isildu ondoren, harridurazko baiezkotasunaren zentzua polaritate fokuari bidez indartu zelarik zenbait hizkeratan. Honek bat egiten du daukaten interpretazioarekin; izan ere, ohikoa da egitura hauen ondoan *benetan be!* tankerako esamoldeak agertzea, baiezko berrespena indartzeko edo.

3.2. Ete kontrako iritzia adierazteko

Azken puntuan *eteren* beste erabilera nola eratorri den ulertzeko saioa egingo dut, azaletik bada ere. 2.2.2 azpiatalean *ete* partikulak ebaluazio edo iritzi kritikoa adierazteko duen balioa deskribatu dugu. Horren berri emateko, berrespenaren interpretazioa azaltzeko proposatu dudan antzeko ideia proposatu nahi dut egitura hauetarako: hots, adiera negatiboa duen aditz baten osagarri perpausak direla, eta aditz hori isildu ondoren geratu den perpaus hondarra gauzatzen dutela. Hortik eratorriko litzateke perpausak duen ezezko interpretazioa eta ezezko polaritateko elementuak (EPE) zilegiztatzeko duten aukera. Izan ere, goragoko (16) adibidea apur bat moldatuz gero EPEa zilegi dela ikus daiteke:

- (22) A. Egueldi zantarra emonda dago, baina halan da guzti be, mendira jungo naz bihar.
 B. (Bai...!) Neu jun ete nazen *inora* honegaz egueldiagaz! Ezta...!

Zein izan daiteke aditz hori? Kasu honetan proposatu nahi dut beste egiturarako proposatu dudan aditz mota bera dugula azpian, baina baiezko modalitatean: hala, *duda egin/zalantzan jarri* aditz epistemikoa hautagai oso egokia da, ohiko testuinguruetan *-(e)n* konplementatzailea duten osagarri perpausak hautatzen baititu, eta *ote* partikularekin batera ager daiteke, ziurtasun ezaren balioa erantsiz (Lafitte 1979 [1944]). Bestalde, berez duen esanahi negatiboagatik aurreikus daitekeenez, EPEak zilegiztatzen ditu. Egitura hauetatik (22) egituretara nola igarotzen garen azaltzeko, proposatu nahi nuke lehenik perpaus nagusia isilean utzi zela testuinguruak lagunduta, eta behin isilduta, *ete* partikulak bere esanahia gramatikalizatu zuela hiztunak proposizioan adierazitakoarekin guztiz bat egiten ez duela adieraztetik —ohiko interpretazioa mendeko perpausetan— adostasunik batere ez duela adierazteraino (Elordiet 2022a, 2022b). Alegia, proposizioarekiko engaiamendu maila txikia izate-tik txikiena izatera igaro zela proposatzen dut. Horrek bat egingo luke egitura esklatiboek daukaten *ñabardura* kuantifikatzailearekin, hots, gehienezko edo gutxieneko maila adieraztearekin, nolabait esateko (Villalba 2003, 2008; Castroviejo 2006, 2008, 2021; Rett 2008, 2011; Bosque 2017; Trotzke & Villalba 2020, 2021; besteak beste), eta era berean hortik eratorriko litzateke daukaten kontrako balioa. Izan ere, ezagunak dira balio ironikoa galdera erretorikoen izaerarekin lotzen duten proposamenak (Sperber & Wilson 1995; Andueza 2011; Gutiérrez-Rexach & Andueza

2017; besteak beste), edota ironia harridurazko perpausen izaeratik erator daitekeelako ideiak (Gutiérrez-Rexach 2008; Escandell & Leonetti 2014).

Proposamenaren ideia nagusiak marraztu ondoren amaiera emango zaio artikuluari. Lan honetan *eteren* bi ezohiko erabileraren deskribapena egin dut, eta egitura hauek erakusten dituzten jokabide sintaktiko eta semantikoak azal ditzakeen hurbilpen bat proposatu dut. Azalpen xeheagoa hurrengo ikerketa batean lantzeko utziko dut, non xehetasun teorikoak emateaz gain, beste hizkuntza batzuetan gertatzen diren antzeko egituren alderaketarekin osatu beharko litzatekeen.

4. Ondorioak

Artikulu honetan *ete* partikulak mendebaldeko hizkera batzuetako harridura-perpausetan dituen bi erabilera dialektal izan ditugu aztergai. Interesa dute ez direlako orain arte deskribatu eta beren interpretazioa ez delako *ote/ete* kanonikoak duena, bai zik eta batean berrespena adierazten duelako, eta bestean kontrako iritzia. Kontuan hartuta biak testuinguru esklamatiboetan erabiltzen direla eta partikularen beharra nahitaezkoa dela egiturek daukaten interpretazioa izan dezaten, bai eta *-(e)n* konplementatzailearen presentzia ere, lan honetan ulertu nahi izan dugu zein den lotura hiru elementuen artean. Perpaus insubordinatuak direla proposatu dugu, jatorrian *duda izan* saileko aditzen osagarri-perpausak, zeinak gramatikalizazio prozesu bat jasan ondoren testuinguru esklamatiboetara mugatu ziren.

Aurrera begira hainbat galdera interesgarri irekitzen dira; mereziko luke mota honetako egiturak antzeko interpretazioa eta sintaxia duten beste hizkuntzetako harridurazko perpausekin alderatzea (Demonte & Fernández 2009; Rodríguez 2011; Hernanz 2012; Badan & Chen 2015; Siemund 2015; Tirado 2016) —adibidez, gaztelaniazko *¡y tanto que es bonita!* esamoldeekin—, partikula modalen ekarpenaren gainean ikuspegi osotuagoa izan dezagun. Bestetik, hemen deskribatu ditugun egiturak euskarazko beste harridura-perpausekin nola uztartzen diren aztertu beharko litzateke, ezaugarri fonologiko, sintaktiko eta semantikoak noraino partekatzen dituzten jakiteko. Honekin lotuta, galderen eta harridura-perpausen arteko desberdintasunak nola ezaugarritu beharko liratekeen ere ikergai interesgarria da.

Azkenik, aurreko lerroetan aipatu dugunez, gogoan izan behar da gainbeheran doazela *eteren* erabilera hauek gazteen mintzoan. Egiatzki, gainbehera ez dagokie *ote/eteren* zentzu hauei soilik; oro har partikula modalak gutxi entzuten dira gazteen ahotan, gehienetan esapide adberbialak hartzen ari direlarik haien funtzioa (*antza denez, segurutik*), edo *ez dakit* aditzaren mendean aditzera emanez (*etorriko ote da* → *ez dakit etorriko den*). Hizkuntza aldaketaren ikuspuntutik interesgarria litzateke aztertzea zein faktorek eragiten duten partikula modalen erabileraren gainbehera hitzgun gazteen artean.

Aipamen bibliografikoak

Alcázar, Asier. 2017. A syntactic analysis of rhetorical questions. In Aaron Kaplan, Abby Kaplan, Miranda K. McCarvel & Edward J. Rubin (arg.), *Proceedings of the 34th West Coast Conference on Formal Linguistics (WCCFL 34)*, 32-41. Somerville, MA: Cascadilla Proceedings Project.

- Altube, Seber. 1929. *Erderismos*. Bermeo: Gaubeka.
- Andueza, Patricia. 2011. *Rhetorical exclamatives in Spanish*. Columbus: Ohio State University-ko doktorego tesia.
- Andueza, Patricia & Javier Gutiérrez-Rexach. 2011. Negation and the interpretation of Spanish rhetorical exclamations. In Claudia Borgonovo, Manuel Español-Echevarría & Philippe Prévost (arg.), *Selected Proceedings of the 12th Hispanic Linguistics Symposium*, 17-25. Somerville, MA: Cascadilla Proceedings Project.
- Artiagoitia, Xabier. 2006. Heiagora perpausak: euren egituraz eta hautapenez. In Beatriz Fernández & Itziar Laka (arg.) *Andolin gogoan: Essays in honor of Professor Eguzkitza*, 155-178. Bilbao: UPV/EHU.
- Artiagoitia, Xabier, Arantzasu Elordieta & Sergio Monforte (arg.). 2022. *Discourse Particles*. Amsterdam: John Benjamins.
- Azkue, Resurrección María. 1923-1925. *Morfología Vasca. Euskera* 4-5-6 (Berrargit. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1969).
- Badan, Linda & Lisa Lai-Shen Cheng. 2015. Exclamatives in Mandarin Chinese. *Journal of East Asian Linguistics* 24 (4). 383-413. <http://dx.doi.org/10.1007/s10831-015-9136-z>.
- Bayer, Josef & Volker Struckmeier (arg.). 2017. *Discourse Particles: Formal Approaches to their Syntax and Semantics*. Berlin & Boston: De Gruyter.
- Biezma, Maria & Kyle Rawlins. 2017. Rhetorical questions: Severing asking from questioning. In Dan Burgdorf, Jacob Collard, Sireemas Maspong & Brynhildur Stefánsdóttir (arg.), *Proceedings of the 27th Semantics and Linguistic Theory Conference (SALT 27)*, 302-322. Maryland: University of Maryland.
- Bosque, Ignacio (arg.). 2017. *Advances in the study of Spanish exclamatives*. Columbus: The Ohio State University Press.
- Castroviejo, Elena. 2006. *Wh-exclamatives in Catalan*. Barcelona: Universitat de Barcelona-ko doktorego tesia.
- Castroviejo, Elena. 2008. Deconstructing exclamations. *Catalan Journal of Linguistics* 7. 41-90.
- Castroviejo, Elena. 2021. Exclamatives. In Daniel Gutzmann, Lisa Matthewson, Cécile Meier, Hotze Rullmann & Thomas Ede Zimmermann (arg.), *The Wiley Blackwell Companion to Semantics*. Hoboken: Wiley-Blackwell.
- Corr, Alice. 2016. *Ibero-Romance and the syntax of the utterance*. Cambridge: University of Cambridge-ko doktorego tesia.
- Corr, Alice. 2018. 'Exclamative' and 'quotative' illocutionary complementisers in Catalan, European Portuguese and Spanish. *Languages in contrast* 18(1). 69-98. <https://doi.org/10.1075/lic.00004.cor>.
- Demonte, Violeta & Olga Fernández Soriano. 2009. Force and Finiteness in the Spanish Complementizer System. *Probus* 21(1). 23-49.
- Döring, Sophia. 2016. *Modal Particles, Discourse Structure and Common Ground Management. Theoretical and Empirical Aspects*. Berlin: Humboldt Universität zu Berlin-eko doktorego tesia.
- Elordieta, Arantzasu. 2010. Aditzaren bikoizketa foku-topikoa denean. In Beatriz Fernández, Pablo Albizu & Ricardo Etxepare (arg.), *Euskara eta euskarak. Aldakortasun sintaktikoa aztergai (ASJUren Gehigarriak 52)*, 37-54. Donostia: GFA.
- Elordieta, Arantzasu. 2022a. *Ote harridura perpausetan*. In Irene Barberia & Alexander Iribar (eds.), *Papers on Basque Linguistics in Honour of Jon Franco*, 147-166. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

- Elordieta, Arantzazu. 2022b. More on the modal particle *ote* in Basque: deriving the ironic reading in certain exclamative contexts. *55th Annual Meeting of the Societas Linguistica Europaea* biltzarrean aurkeztua.
- Elordieta, Arantzazu & Bill Haddican. 2016. Strategies of Verb and Verb Phrase focus across Basque dialects. In Beatriz Fernández & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *Microparameters in the grammar of Basque*, 221-242. Amsterdam: John Benjamins.
- Escandell, M.^a Victoria & Manuel Leonetti. 2014. Fronting and irony in Spanish. In Andreas Dufter & Álvaro Octavio de Toledo (arg.), *Left Sentence Peripheries in Spanish: diachronic, variationist and typological perspectives*, 309-342. Amsterdam: John Benjamins.
- Extepare, Ricardo. 2003. Exclamatives. In José Ignacio Hualde & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*, 570-578. Berlin & New York: Mouton de Gruyter.
- Extepare, Ricardo. 2008. On quotative constructions in Iberian Spanish. In Ritva Laury (arg.), *Crosslinguistic studies of clause combining. The multifunctionality of conjunctions*, 35-78. Amsterdam: John Benjamins.
- Extepare, Ricardo. 2010a. *Omen* bariazioan. In Beatriz Fernández, Pablo Albizu & Ricardo Extepare (arg.), *Euskara eta euskarak. Aldakortasun sintaktikoa aztergai (ASJUren Gehigarriak 52)*, 85-112. Donostia: GFA.
- Extepare, Ricardo. 2010b. From hearsay evidentiality to samesaying relations. *Lingua* 120. 604-627.
- Extepare, Ricardo & Larraitz Uria. 2016. Microsyntactic variation in the Basque hearsay evidential. In Beatriz Fernández & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *Microparameters in the Grammar of Basque*, 265-288. Amsterdam: John Benjamins.
- Euskaltzaindia. 1986. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak I (EGLU I)*, 342-343. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. 1987. *Euskal Gramatika Lehen Urratsak I*, 485-516. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. 1991. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak II (EGLU II)*, 485-487; 509-516. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. 1999. *Euskal Gramatikaren Lehen Urratsak V (EGLU V)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. 2021. *Euskararen Gramatika*. Bilbao: Euskaltzaindia.
- Euskara Institutua. Bestelako adberbioak. *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*. UPV/EHU. [https://www.ehu.eus/seg/morf/5/10/3/2/6?s\[\]=oteak&s\[\]=ote](https://www.ehu.eus/seg/morf/5/10/3/2/6?s[]=oteak&s[]=ote) (2023/12/30).
- Evans, Nicholas. 2007. Insubordination and its uses. In Irina Nikolaeva (arg.), *Finiteness: Theoretical and Empirical Foundations*, 366-431. Oxford: Oxford University Press.
- Gras, Pedro. 2016. Revisiting the functional typology of insubordination. *Que-initial sentences in Spanish*. In Nicholas Evans & Honoré Watanabe (arg.), *Insubordination (Typological Studies in Language 115)*, 113-144. Amsterdam: John Benjamins.
- Gras, Pedro. 2017. Exclamatives in the functional typology of insubordination: Evidence from complement insubordinate constructions in Spanish. *Journal of Pragmatics* 115(2). 21-36. <https://doi.org/10.1016/j.pragma.2017.04.005>.
- Gutiérrez-Rexach, Javier. 2008. Spanish root exclamatives at the syntax/semantics interface. *Catalan Journal of Linguistics* 7. 117-133.
- Gutiérrez-Rexach, Javier & Patricia Andueza. 2017. Embedded exclamatives and the ingredients of grounded belief. In Ignacio Bosque (arg.), *Advances in the study of Spanish exclamatives*, 181-210. Columbus: The Ohio State University Press.

- Hernanz, M.^a Lluïsa. 2012. Sobre la periferia izquierda y el movimiento: El complementante *si* en español. In José María Brucart & Ángel Gallego (arg.), *El movimiento de constituyentes*, 151-171. Madrid: Visor.
- Jendraschek, Gerd. 2003. *La modalité épistémique en Basque*. Muenchen: Lincom Europa.
- Korta, Kepa & Larraitz Zubeldia. 2014. The contribution of evidentials to utterance content: evidence from the Basque reportative particle *omen*. *Language* 90. 389-423.
- Korta, Kepa & Larraitz Zubeldia. 2022. Meaning and use of the Basque particle *bide*. In Artiagoitia, Xabier, Arantzazu Elordieta & Sergio Monforte (arg.), *Discourse particles: syntactic, semantic, pragmatic and historical aspects*, 209-228. Amsterdam: John Benjamins.
- Lafitte, Pierre. 1979. *Grammaire basque: (navarro-labourdin littéraire)*. Baiona: Elkar (1. argit., 1944).
- Lakarra, Joseba A. 2019. *Bon-/bor-/bol-* familiaren berreraiketarako (II): Etimologia, partikulen historiaurrea eta hots-lege batzuen irregularitateez. In Irantzu Epelde & Oroitz Jauregi (arg.), *Bihotz ahots: Oñederra irakaslearen omenez*, 377-395. Bilbo: UPV/EHU.
- Littell, Patrick, Lisa Matthewson & Tyler Peterson. 2010. On the semantics of conjectural questions. In Tyler Peterson & Uli Sauerland (arg.), *Evidence from evidentials. University of British Columbia Working Papers in Linguistics (UBCWPL 28)*, 89-104. Vancouver: U. of British Columbia.
- Michaelis, Laura. 2001. Exclamative constructions. In Martin Haspelmath, Ekkehard König, Wulf Oesterreicher & Wolfgang Raible (arg.), *Language Typology and Language Universals*, 1038-1050. Berlin: De Gruyter.
- Monforte, Sergio. 2020a. *Galderetako -a*, al *eta* ote partikulak euskaraz. Gasteiz: UPV/EHUko doktorego tesia.
- Monforte, Sergio. 2020b. Syntactic analyses of discourse particles through the microvariation of Basque *ote*. *Glossa* 5(1). 1-29.
- Monforte, Sergio. 2021. *Ote* partikularen interpretazioaz eta haren mikroaldakortasunaz. *Uztaro* 119. 95-119.
- Mujika, José A. 1988. Partículas modales de la flexión verbal. *ASJU* 22. 463-478.
- Munaro, Nicola. 2022. Anchoring primary and secondary interjections in the context. In Xabier Artiagoitia, Arantzazu Elordieta & Sergio Monforte (arg.), *Discourse particles*, 157-178. Amsterdam: John Benjamins.
- Obenauer, Hans-Georg. 2004. Nonstandard *wh*-questions and alternative checkers in Paggotto. In Horst Lohnstein & Susanne Trissler (arg.) *Syntax and Semantics of the Left Periphery, Interface Explorations*, 343-384. Berlin & Boston: De Gruyter Mouton.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1989. *Some Parameters in the Grammar of Basque*. Dordrecht: Foris.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1994. Verb-initial patterns in Basque and Breton. *Lingua* 94. 125-153.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1995. Residual verb second and verb first in Basque. In Katalin É. Kiss (arg.), *Discourse configurational languages*, 99-121. Oxford: Oxford University Press.
- Ortiz de Urbina, Jon. 2003. Modal particles. In José Ignacio Hualde & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*, 322-329. Berlin & New York: Mouton de Gruyter.
- Petirena, Patxi. 2011. *Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Rett, Jessica. 2008. *Degree modification in natural language*. New Brunswick: Rutgers University-ko doktorego tesia.

- Rett, Jessica. 2011. Exclamatives, degrees and speech acts. *Linguistics and Philosophy* 34. 411-442.
- Rijk, Rudolf P. G. de. 1972. Partitive Assignment in Basque. *ASJU* 6. 130-173 (Berrargit. *De lingua vasconum: Selected Writings [ASJUren Gehigarriak 43]*, 151-182, 1998).
- Rijk, Rudolf P. G. de. 2008. *Standard Basque: A progressive grammar*. Cambridge, MA: MIT Press.
- Rodríguez Ramalle, Teresa María. 2011. La expresión del grado en las interjecciones y la función de la conjunción *que*. *Verba* 38. 191-217.
- Siemund, Peter. 2015. Exclamative clauses in English and their relevance for theories of clause types. *Studies in Language* 39(3). 697-727. <https://doi.org/10.1075/sl.39.3.06sie>.
- Sperber, Dan & Deirdre Wilson. 1995. *Relevance: communication and cognition*. Oxford: Blackwell (1. argit., 1986).
- Tirado, Irene. 2016. Aproximación sintáctica a las oraciones exclamativas del español. *Borealis: An International Journal of Hispanic Linguistics* 5(2). 191-219. <http://dx.doi.org/10.7557/1.5.2.3877>.
- Trotzke, Andreas & Xabier Villalba. 2020. Exclamatives as responses at the syntax-pragmatics interface. *Journal of Pragmatics* 168. 139-171.
- Trotzke, Andreas & Xabier Villalba (arg.). 2021. *Expressive meaning across linguistic levels and frameworks*. New York: Oxford University Press.
- Uriagereka, Juan. 1999. Minimal restrictions on Basque movements. *Natural Language and Linguistic Theory* 17. 403-444.
- Villalba, Xabier. 2003. An exceptional exclamative sentence type in Romance. *Lingua* 113. 713-745.
- Villalba, Xabier. 2008. Exclamatives: A thematic guide with many questions and few answers. *Catalan Journal of Linguistics* 7. 9-40.
- Villasante, Luis. 1979. *Sintaxis de la oración compuesta*. Oñati: Editorial Franciscanas Aránzazu.
- Wiltschko, Martina & Johannes Heim. 2016. The syntax of sentence peripheral discourse markers: A neo-performative analysis. In Gunther Kaltenböck, Evelien Keizer & Arne Lohmann (arg.), *Outside the clause: Form and Function of Extra-clausal Constituents*, 305-340. Amsterdam: John Benjamins.
- Zanuttini, Raffaella & Paul Portner. 2003. Exclamative clauses: At the syntax-semantics interface. *Language* 79(1). 39-81. <https://doi.org/10.1353/lan.2003.0105>.
- Zuazo, Koldo. 2017. *Mendebaleko euskara*. Donostia: Elkar.
- Zubeldia, Larraitz. 2009. Omenen zalantzak argitu nahian. *Euskera* 54. 843-883.
- Zubeldia, Larraitz. 2010. Omen partikularen azterketa semantikoa eta pragmatikoa. Gasteiz: UPV/EHUko doktorego tesia.
- Zubeldia, Larraitz. 2011. Omen partikularen azterketa semantikoa eta pragmatikoa. *Gogoa* 9(2). 227-247. <https://doi.org/10.1387/gogoa.3560>.

Erabilitako corpusak

Orotariko Euskal Hiztegia

Corpus Historikoa: <https://www.ehu.eus/etc/ch>

Eguno Testuen Corpusa: <https://www.ehu.eus/etc>

Euskaltzaindiaren XX. mendeko Euskararen Corpus Estatistikoa: <http://xxmendea.euskaltzaindia.net/Corpus/aurkezpena.html>

